



# DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

## 2014 TXOSTENA

# AURKIBIDEA



SARRERA 3

DATU OROKORRAK  
ETXEAREN HOBEKUNTZAK



ZERBITZUAK 9



PROIEKTUAK 16



TREBAKUNTZA 21

IKASTAROAK  
HITZALDIAK  
JARDUNALDIAK





ERAKUSKETAK 65



BESTELAKO JARDUERAK 69

# SARRERA



## Emakumeen Etxea

Emakumeen Etxea, Mugimendu eta elkarte feministen eta Udalaren Berdintasun Atalaren arteko partaidetza-prozesu baten ondorioz sortu zen eta parte hartzean oinarritutako prozesu honek eredu aitzindaria sorrarazi du: Emakumeen Etxearen kudeaketa mistoa .

Donostiako Emakumeen Etxearekin batera topagune bat sortu dugu, konplizitateak eta esperientziak elkartrukatzuz ekimen kolektiboa bideratzen laguntzen diguna, ondoko helburuarekin: aurrera egitea emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eragingarri bat lortzeko bidean.



Etxea erreferentziazko gune bat da, bai udalerriko emakume guztientzat, bai Lurralde Historikokoentzat, bai Autonomia Erkidegokoentzat, gizarte parekide batera iristeko egin beharreko eraldaketa sozialaren prozesuan, oinarri-oinarrizkotzat jotzen dugulako gure partaidetza, bai hiritar aktibo gisa, bai eta geure interesen aldeko aldarrikapenaren eta mobilizazioaren protagonista gisa ere.

Emakumeen Etxea espazio fisikoa da, sinbolikoa izateaz gain. Obedientziari uko egiteko, gogoeta egiteko eta pentsamendua ekoizteko esperientziak sustatzen ditu etengabe. Horregatik, Donostiako mugimendu feministaren eta emakumeen erreferentziazko gunea da.

## Datu orokorrak

Bisita kopurua: 33.521

Urtean zehar hilabete bakoitzeko batz bestekoa: 2.794



## Datu orokorrak

### Etxean egiten diren ekintzen berri eskaini da:

Donostiako Gizarte Zerbitzuak auzoetan dituzten bulegoetan

Donostiako Udaleko Kultur-etxeetan

Martuteneko kartzelan

Donostiako anbulategietan

Emakumeen Etxea Elkarteko bazkideen artean

**Kogestio bilera kopurua** (Administrazio publikoaren, elkarte-sarearen eta Donostiako emakumeen partaidetza daukan kide anitzeko organoa da, gune komun erabilera arautu eta koordinatzeko helburua duena): 8

**“Sukaldea Programaziorako Gunea” bilera kopurua: 6**

**Elkarteko bazkide kopura: 332**


## Emakumeen Etxean hobekuntzak

Aurten, gela balioanitzeko sabaian, proiektore finko bat jarri da:




# Komunikazioari dagokionez:

Etxeko zerbitzuen orria berritu dugu






# ZERBITZUAK



## Aholkularitza juridikoa



**Parte hartzaileak:** 280


**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakume Bananduen  
Elkartea eta Arrats Elkarte

Astean behin goian aipatutako elkarteek emakumeei informazio eta aholkularitza juridikoa eskaintzen diete dituzten zalantza edota gatazken aurrean erreminta legalak izan ditzaten.

## Ikasketa homologazioa



[www.bidezvide.wordpress.com](http://www.bidezvide.wordpress.com)

[bidezvide@hotmail.com](mailto:bidezvide@hotmail.com)

**Parte hartzaileak:** 151


**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Bidez Bide Elkarte

Atzerrian eginiko ikasketak balioztatzeko informazioa eskaintzen du elkarteak astean behin etxean. Hala izapideak egiteko eman beharreko pausuak etabar azaltzen dizkiete emakume, oro har, atzerritarrei.

## Norbanakoaren jabekuntzarako gunea



**Parte hartzaileak:** 195

**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea  
Elkartea



Astean behin, psikologa profesional batek lagunduta, aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinaritutako baliabideak lortzeko gunea da hau.

## Lahia nahia



**Parte hartzaileak:** 96

**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Lahia Nahia Elkarte



Sexu eta generoaren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzen dute astean behin bereziki gazte eta nerabeei zuzenduriko saioetan.

## Jabetze taldeak



**Parte hartzaileak:** 44


**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Aizan Elakartea

Talde dinamika desberdinen bidez indarkeria bzipen desberdinetatik igarotako emakumeek autoestimua, elkarren arteko laguntza eta horrelakoak lantzen dituzte.

## Ordenagailuak



**Data:** Urte osoan zehar

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila eta  
Emakumeen Etxea Elkarte

Egun osoan zehar ordenagailuak daude erabilgarri emakumeek kontsultak eta informazioa nahiz komunikazioan lagundu eta trebatzeko.

# PROIEKTUAK





## Emakume etorkinen kulturantzitasun taldea



**Parte hartzaileak:** 51 emakume igaro dira

**Hizkuntza:** Gaztelera


**Iraupena:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila, Kulturantzitasun Saila eta Garaipen Elkartea

**Dinamizatzailea:** Tania Siriany

Gune hau jatorri desberdinetako emakumeentzat sorturiko asialdi eta dibertsiorako gunea da. Helburua elkar ezagutzea, osasun fisiko eta emozionala hobetzea, zubiak eraikitzea eta sarea egitea, ongi pasatzea eta baliabide desberdinez informatzea da. Kanpotik etorritako emakumeei zuzenduta dago. Horretarako astero elkartuz.

## Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak



**Parte hartzaileak:** 25 emakume igaro dira

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila eta Garaipen elkarte

**Dinamizatzailea:** Ana Murcia

Edozein indarkeria egoera igarotako emakumeei laguntza eskaintzeko gunea da. Helburua, taldean, indarkeria-bizipena izan duten emakumeek euren beldurrak, hausnarketak, zailtasunak etab. lantzea da dinamika parte hartzaileen bidez.

## Denda Gratix



**Iraupena:** Urte osoan zehar

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea elkarte



Sistemak sustatzen dituen ordenaren eta kontsumoaren aurrean sorturiko doako denda da. Bertan emakumeek arropa, tresna, liburuak edota bestelako materiala utzi eta har dezakete erabat doan.

## Ekofeminismo laborategia



**Parte hartzaileak:** 4


**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Irailetik abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea  
Elkartea

Bizi garen errealitatearen inguruan hausnartzeko Gune Feminista da, gizartean eragin politikoa izateko, analisia, hausnarketa eta ekintza feministaz baliatuz eta askotariko ekologismoak aintzat hartuta, eraldaketa sozialean parte hartzeko gunea da.

# TREBAKUNTZA



## Sorginbanda-Batukada feminista



**Parte hartzaileak:** 30

**Hizkuntza:** Elebiduna


**Iraupena:** Urte osoan zehar

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Arantxa Vicedo eta  
Ainara Sarasketa

Gune honetan, musikara gerturatzeaz aparte, sormena eta eraikuntza kolektiboa lantzen den talde bat sortu da. Norberaren burua entzun eta besteak entzuten ikasten da, aldi berean autoestimua landuz. Musika instrumentuak jotzen ikasi, kaleko okupazioa landu eta data zehatzetan kalera jotzera irtertetzen da.

## Informatika: lehenengo pausoak ordenagailuekin



**Parte hartzaileak:** 21

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** martxoa, apirila eta maiatza

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Mertxe Tranche eta Elena Rincón

Office librea eta orokorren ordenagailuaren erabilera landu eta trebatzeko oinarrizko saioak dira.

## Interneta: lehenengo pausoak



**Parte hartzaileak:** 24

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** otsailtik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Mertxe Tranche eta Elena Rincón

Internetaren erabilera landu eta trebatzeko oinarrizko saioak dira.



## “Ventaneras”: emakumeek idatzitako gaztelaniazko literaturaren berrirakurketa



**Parte hartzaileak:** 29

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berditasun Saila

**Dinamizatzailea:** Mertxe Tranche

Mendeetan zehar, ez da izan emakumeentzat *mari-bandera* edo *hitzontzi* deitzea baino irain handiagorik. Etxe edo komentuetan itxita bizi zirelarik, leihoa zuten ihesbide eta askabide bakar; eta idatzizko hitzak, berriz, gogamenaren leiho. Haien liburuak dira, orain, gure horma baoak emakumeei –guri begira ere badauden emakume horiei– kanpotik barrura begiratzeko eta haiekin eta guri esateko zeukatenarekin egiaz topo egiteko.

## Sexualitateak euskal literaturan



**Parte hartzaileak:** 15

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila

**Dinamizatzailea:** Iratxe Retolaza

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, sexualitate(ar)en eraikuntzaren eta errepresentazioaren inguruko hausnarrera bilduko den begirada; eta bestetik, begirada feminista. Bidegurutze horretan, literatura eta sexualitatearen inguruko diskurtsoen arteko gogoetabideak zabaltzea izango da helburu nagusia, betiere ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz. Galdera hauetariko ahaleginduko gara irakurketa-talde zenbait erantzuten honetan: nola irudikatu da sexualitatea euskal literaturan? Izan al da euskal literatura sexualitate ereduak iraunarazteko gune? Edo proposatu al dira euskal literaturan sexualitate eredu berriak? Begirada feministak sexualitatearen zer diskurtso garatu du literaturan? Irakurleok nola eraikitzen dugu sexualitatearen errepresentazio literarioaren eta geure sexualitatearen arteko harremana?

## Mito literarioak eta irakurbide feministak



**Parte hartzaileak:** 15

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Iratxe Retolaza

Mito literarioak mundu ikuskera bat transmititzeko erabili ohi dira, eta bertako pertsonaiak jarrera sozial eta kultural naten ikur izan ohi dira. Zentzu horretan, mito literario guztiek genero ikuskera bat garatzen dute, eta genero rolak transmititzeko bide eraginkorra izan dira historian zehar. Mito literarioak kultura-, erlijio-, gizarte- eta geografia-eremu jakin bati atxikiak bizi direnez, zentzu eta egitura aldakorrak dituzte. Ikastaro honetan mito literario horietan gorpuzturiko genero eraikuntzak aztertu ditugu, eta historian zehar mito literario horiek nola gaurkotu diren ere aipatu dugu, betiere berrirakurketa feministak jorratu dituzten proposamen literarioetan arreta berezia jarritz.

## Xake



**Parte hartzaileak:** 20

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Iraupena:** Urte guztia, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Julia Gallego

Emakumezko xake jokalariak sortzea eta bultzatzea helburu du taldeak. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzen dira etxean.

## Antzerkia



**Parte hartzaileak:** 13

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte guztia, abuztuan izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Lourdes Tejera

Gorputz eta antzezpen lanaz gain, azkenengo emanaldirako euskarri gisa baliogarria izan daitekeen sormen artistiko lana sartu da baita ere.

## Mugimendu tailerra

**MUGIMENDU TAILERRA**

Dialortan feministak aspalditik diote emakumei gure gorputza gabatu gaituztela. Objektu eder bezala eraikiak izan gara, kanpotik ezarri diguten kanona ondo betetzen dugularen esperoan, pasibitatera eta gelditasunera erbesteratuak. Perfekzioaren tranpan giltzatu eta sujetu hutara bezala idealizatu gaituzte. Estrategikoki, emakumeak geure materia eta haragirik berezituak izan gara. Usaindu, handitu, zabaldu, aldatu, zarata egin eta Lurrean toki bat betetzen duen gorputzetik banandu gaituzte.

Ikuspegi feminista batetik, gorputza produktu kultural bat bezala ulertuz, honen inguruko beste begirada bat proposatu nahi dugu. Horrela, gorputza tresna bezala eta beldurrik gabe erabiltzera gonbidatu nahi zaituztegu: pentsatzeko, eraldatzeko, hausnartzeko, aldarrikatzeko, disfrutatzeko...

Mugimendu tailerra, gorputzaren eta mugimenduaren inguruko esperimenezko espazio bat bezala planteatzen dugu.

Gorputzen eraikuntzaren inguruko hausnarketak, batzuetan gure gorputzetatik abiatuko dira mugimendu dinamika batzuen bitartez eta besteetan testu edo arte lan (bideo performance) batzuen lanketatik. Eta arnasketa lanaren bitartez gure gorputza nabaritzen, usaintzen, mimatzen eta entzuten ikasiko dugu.

Hasiere data-Comienzo:  
Otsailak 4 Febrero



**ASTEARTEAK-LOS MARTES**  
18:00-20:00

**DINAMIZATZAILEAK:**  
Maider Andonegi eta Ana Revuelta

**ANTOLATZAILEA:**  
Emakumeen Etxea Elkartea



**Parte hartzaileak:** 16

**Hizkuntza:** Euskera

**Iraupena:** otsailetik abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea  
Elkartea

**Dinamizatzailea:** Maider Andonegi eta  
Ana Revuelta

Diskurtso feministek aspalditik diote emakumei gure gorputzaz gabatu gaituztela. Objektu eder bezala eraikiak izan gara, kanpotik ezarri diguten kanona ondo betetzen dugularen esperoan, pasibitatera eta gelditasunera erbesteratuak. Perfekzioaren tranpan giltzatu eta sujetu hetero bezala idealizatu gaituzte. Estrategikoki, emakumeak geure materia eta haragitik berezituak izan gara. Usaindu, handitu, zabaldu, aldatu, zarata egin eta Lurrean toki bat betetzen duen gorputzetik banandu gaituzte.

Ikuspegi feminista batetik, gorputza produktu kultural bat bezala ulertuz, honen inguruko beste begirada bat proposatu nahi dugu. Horrela, gorputza tresna bezala eta beldurrik gabe erabiltzera gonbidatu nahi zaituztegu: pentsatzeko, eraldatzeko, hausnartzeko, aldarrikatzeko, disfrutatzeko...

Mugimendu tailerra, gorputzaren eta mugimenduaren inguruko esperimenezko espazio bat bezala planteatzen da:

Gorputzen eraikuntzaren inguruko hausnarketak, batzuetan gure gorputzetatik abiatuko dira mugimendu dinamika batzuen bitartez eta besteetan testu edo arte lan (bideo performance) batzuen lanketatik. Eta arnasketa lanaren bitartez gure gorputza nabaritzen, usaintzen, mimatzen eta entzuten ikasiko dugu.

## Feminismoa ez feministentzat



TALLER  
FEMINISMO PARA NO FEMINISTAS  
TAILERRA  
Hasiera data-Comienzo: Otsailak 10 Febrero. 18:00-19:30  
Dinamizatzailea-Dinamiza: María Castejón  
Antolatzailea-Organiza: Emakumeen Etxea Elkarte

**Parte hartzaileak:** 8

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** otsailtik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** María Castejón

Feminismoaren lehen hastapenak eta oinarrizko kontzeptuak lantzeko saio teorikoak dira.

## Mugimendu feministaren historia



**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** otsaila eta martxo

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Emagin Elkarte

Mugimendu feministak, ez dira orain dela hamarkada bateko kontuak. Izan ere, feminismoa, emakumeek munduko herrialde guztietan aurrera eramandako borroka eta ekarpenari esker garatzen joan baita. Baina gaur egungo feminismoak badu bere jatorria, bere testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoa. Guzti hau ezagutzea, munduan zein Euskal Herrian mugimenduak izandako bilakaera eta aldarrikapenak ezagutzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko tresna ezin hobea dela uste dugu. Ikastaro honetan, mendebaldeko mugimenduaren historiaz gain, Euskal Herrian 70. hamarkadatik aurrera ezagutu dugun mugimenduaren inguruan solastuko gara, antolatzeko modu eta aurrera eramandako borroka aztertuz. Historia ezagutzeak, aurrera begiratzen laguntzen baitigu!



## Autodefentsa

**AUTODEFENTSA TAILERRA**  
**TALLER DE AUTODEFENSA**

Hasiera data  
Comienzo:  
Otsailak 14 Febrero  
17:00-19:00

**Dinamizatzailea**  
**Emagin**  
**Elkartea**  
**Antolatzailea:**  
**Emakumeen**  
**Etxea**  
**Elkartea**



 Gipuzkoako Foru Aldundia



**Parte hartzaileak:** 20

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** otsailetik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Emagin Elkarte

Jaiotzen garen unetik sozializazio esparru ezberdinetatik (ikastetxea, aisialdia, familia, komunikabideak...) emakume izateko hezten gaituzte arestian aipatutako rol-ak gure nortasunean atxikiz. Prozesu horretan gakoetako bat BELDURRA da: txikitatik erakusten digute emakume bezala beldurra sentitzen; kalean bakarrik edota ilunpean gaudelako esaterako.

Emakume izateagatik pairatzen dugun zapalkuntzari erantzun eta botere harreman horiek salatze eta apurtze aldera, emakume bezala geure egiten dugun jarrera aktibo eta iraultzailea da.

## Autodefentsa feminista



**Parte hartzaileak:** 42

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Iraupena:** Uztaila

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila

**Dinamizatzailea:** Emagin Elkartea eta Maitena Monroy

Autodefentsa feministaren inguruko bi saio eskaini dira, egun osokoak, emakumeek euren burua defendatzen ikasteko. Asmoa, jakintza teorikoak eta fisikoak lantzea da edozein erasoren aurrean defendatzeko ziurtasuna, autoestimua eta gaitasuna garatzeko.

## Denboraren bankua



**Parte hartzaileak:** 25

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** urte guztia

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Elena Rincón

Dirurik gabeak baina aberatsak gara. Askotan ez dugu dirurik behar, baizik eta aukera izan zerbitzuak eskuragarri izateko eta elkar trukatzeko

## Bideogintza

**BIDEOGINTZA  
TAILERRA**

OTSAILAK 1 FEBRERO  
10:00-13:00.  
OTSAILAK 11 FEBRERO  
17:00-20:00.  
MARTXOAK 3 MARZO  
17:00- 20:00.  
MARTXOAK 17 MARZO  
17:00- 20:00.  
APIRILAK 5 ABRIL  
10:00- 13:00.  
MAIATZAK 3 MAYO  
10:00-13:00

DINAMIZATZAILEA-DINAMIZA:  
ITZIAR BASTARRIKA  
ANTOLATZAILEA-ORGANIZA:  
EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA





**Parte hartzaileak:** 11

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** otsailetik maiatzera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Itziar Bastarrika

Bideogintza, edo ikus entzunezko komunikazioa, beste hizkuntza mota bat da. Adierazi nahi dugun hori esateko modu bat. Tailer honetan, lan kolektiboa eginez, ikus entzunezko dokumental bat sortuko dugu elkartzen gaituen gai bat abiapuntutzat hartuz. Bideoak sortzen ikasiko dugu, lan horrek suposatzen duen fase guztietatik pasatuz.

## Brikolajera



**Parte hartzaileak:** 22

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urritik abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** Ana Agirregomezkorta

Emakumeok aukera gutxi izan dugu brikolaje mundua ezagutzeko. Ikastaro honetan, onarriko gauzak landu dira, beldurrak eta estereotipoak apurtuz.

## Sexualitate tailerra

**ASTELEHENETAN EMAKUMEEN ETXEAN  
LOS LUNES EN LA CASA DE LAS MUJERES**  
**Hasiara data-Comienzo: Urtarrilak 27 Enero 19:00**  
**Dinamizatzailea-Dinamiza: Kontxi López**  
**Antolatzailea-Organiza: Emakumeen Etxea Elkarte**



**Sexualitateak gure gorputz sexudunear du bere lekua eta garatzeko aukera.**  
 Gure gorputzaren onak erabiltzeko gure gorputz sexudunear du bere lekua eta garatzeko aukera. Gure gorputzaren onak erabiltzeko gure gorputz sexudunear du bere lekua eta garatzeko aukera. Gure gorputzaren onak erabiltzeko gure gorputz sexudunear du bere lekua eta garatzeko aukera.

**La sexualidad reside y se hace posible en nuestro cuerpo sexuado.**  
 Nuestra sexualidad reside y se hace posible en nuestro cuerpo sexuado. Nuestra sexualidad reside y se hace posible en nuestro cuerpo sexuado. Nuestra sexualidad reside y se hace posible en nuestro cuerpo sexuado.

**Parte hartzaileak: 10**

**Hizkuntza: Elebiduna**

**Iraupena: urtarriletik martxora**

**Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte**

**Dinamizatzailea: Kontxi López**

Sexualitateak gure gorputz sexudunear du bere lekua eta garatzeko aukera. Gure gorputzaren aukera erotikoen gauza gutxi bezala pizten dituzte plazera eta irrika, itxaropena eta mina, eztabaida eta isiluneak. Gure gorputzarekin ez ezik, hitzekin, irudiekin, errituarekin eta fantasiekin dago lotuta sexualitatea. Bizitza osoan gurekin daramagu sexualitatea. Pertsona guztiak gara sexudunak, eta, horregatik, plazera eta komunikazioa lortzeko tresna dugu gorputza. Ikerketa laborategi batean bezala. Inoiz ez da beranduegi norbait maitatzeko edo gorputzean sentsazio gustagarriak izateko. Gure gorputz sexuduna ezagutu behar dugu; sentitzeko aukerak ezagutuz gero, plazer-mota gehiago hautemango ditugu sexu-jolasean.

## Esdoskitze:laguntza taldea



**Parte hartzaileak:** 12

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Data:** urtarriletik ekainera

**Antolatzailea:** Esnearen Liga

**Dinamizatzailea:** Esnearen Liga

Sustengu taldea bilera ireki eta dohakoia da, haurdun dauden emakumeentzat, edoskitze aldian daudenentzat eta edoskitzeari buruzko interesa duen pertsona orokorrentzat. Guraso, amona eta osasungintzako profesionalak etortzen dira bereziki. Emakumeek zalantzak konpartitzen dituzte, arazoei konponbidea bilatzen eta orokorean edoskitzea aintzat hartzen duten beste emakumeen konpainiaz gozaten dute. Monitoraren papera, bere hurrei bularra eman eta Nazioarteko La Leche League-en partetik formazioa jaso duen emakumea, hizpide diren gaiak edoskitze eta amatasunari buruzkoak direla bermatzea da eta beharrezkoa denean informazio zehatza eskaintzea beti ere errespetu eta enpatia erakutsiz, horrela emakume guztiak onartuak eta ongi etorriak sentitu daitezzen. Esnearen Ligak eskaintzen duen amatik amarako sustengua bereziki eraginkorra da edoskitze naturala modu normal batean gertatu dadin portaera egokienak susatzeko, horrela edoskitzea eta amatasunarengan amen autonomia, independentzia eta garapen integrala handituz.

## Desprintzesatze tailerra



**Parte hartzaileak:** 18

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** urritik abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea  
Elkartea

**Dinamizatzailea:** Irantzu Varela



## Sendabelarrak eta Kosmetika naturala



**SENDABELARRAK**  
eta  
**KOSMETIKA NATURALA**

**UZTAILAK 16**

- Aurpegiko krema
- Hortzetako pasta
- Ezpainetako balsamua

**UZTAILAK 17**

Sendabelarrak bilatzeko irteera

**UZTAILAK 18**

Ukenduak egin

- San Juanera
- Kalendula

**ORDUA:**  
16:30-20:30

**LEKUA:**  
Emakumeen etxean

**Parte hartzaileak:** 16

**Hizkuntza:** Euskera

**Data:** uztaila

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea  
Elkartea

**Dinamizatzaileak:** Alaitz Mañes eta  
Eva Mena

Ez bazaizu gustatzen egunero higienerako erabiltzen dituzun gauzak nola egiten diren ez jakitea, produktu kaltegarriez eta kutsakorrez eginak egotea...  
Naturalak erostea oso garestia dela iruditzen bazaizu...  
Gure arbasoen jakitua berreskuratu nahi badezu...  
Inguruko sendabelarren propietateak ezagutu nahi badituzu...  
Hau guztia zuk egiten ikasteko aukera eskaintzen du ikastaro honek.

## Zinema eta iragarkietako emakumeak. Genero irudikapen analisia



**Ikastaroaren datak-Días del curso:**  
Apirilak 28 Abril; Maiatzak 12, 19, 26 Mayo; Ekainak 2, 9 Junio.18:00-19:30  
**Formatzailea-Formadora:** María Castejón  
**Antolatzailea-Organiza:** Emakumeen Etxea Elkarte  
**Izen Ematea-Inscripción:** emakumeenetxea@gmail.com

**Parte hartzaileak:** 12

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** apiriletik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Dinamizatzailea:** María Castejón

Zer nolako emakume eredua saltzen digute hedabideek? Nola deseraiki iragarkietan edota zineman agertzen den emakumearen arketipoa? Horrelako galderari erantzuten saiatu gara ikastaro honetan.

## Arteterapia



**Parte hartzaileak: 8**

**Hizkuntza: Gaztelera**

**Data: azaroa eta abendua**

**Antolatzailea: Emakumeen Etxea  
Elkartea**

**Dinamizatzailea: Birginia Osa**

Tailer honek, arte, musika eta mugimenduaren erabileran ditu bere oinarriak, bai sormenaren indar eragile moduz, bai emakumearen komunikabide eta integrazioan interbentzio eredu gisa.

Tailerraren helburu nagusia sormengune bat sortzea da, emakumeek haien lanei esker, ideiak elkarraldatu eta beraingean hausnar dezatenean. Hortarako, eta beren sentimenduak, emozioak eta pentsamenduak, berez adieraz ditzaten, autoestima berrindartzeko eta identitatea finkatzeko asmoz, adierazkor gaitasunak indartzeko balio duten ekintza plastika ezberdin bitartez lan egingo dute Arteterapian.

Halaber, emakumeak bere gorputzarekiko sentsibiltatea areago dezan, harekin duen harremanaz jabetuz, tentsioak askatuz eta, jarrera, arnasa egiteko eta mugitzeko patroiak aldatuz, Adierazkor Terapietan, ariketa eta mugimenduen bidez arituko da, gorputz autokontzientziak, autoirudian aldaketa garrantzitsuak lortzen baiditu, norbera bere gorputzean ongitasunez, konfidantzaz eta integrazioz bizitzen ikasterakoan.

Ateterapiaren bidez, emakumea beretaz ohartzen da, berbera ulertzen da, bere burua ezagutzen du eta bere muga eta behar guztiekin lotzen da.

## Aktibismo feminsita 2.0



**AKTIBISMO FEMINISTA 2.0REN OINARRIAK**

**BILEON**  
2014ko Maiatzak 16, ostreia, Boluntan (Ronda Kalea, 12, Aste Zahara), goizeko 9:00etatik eguerdiko 2:00era

**DONOSTIA**  
2014ko Maiatzak 17, jarunbata, Emakumeen Etxean (Okendo Kalea, 9), goizeko 9:00etatik eguerdiko 2:00era

**BIDEAKTIBISMOA ETA GENERO EREDUAK**

**DONOSTIA**  
2014ko Maiatzak 31, jarunbata, Emakumeen Etxean (Okendo Kalea, 9), goizeko 9:00etatik eguerdiko 2:00era

**AKTIBISMOA ETA SEGURTASUN NEURRIAK SAREAN**

**DONOSTIA**  
2014ko Ekainak 7, jarunbata, Emakumeen Etxean (Okendo Kalea, 9), goizeko 9:00etatik eguerdiko 2:00era

**IZEN EMATEA:** [info@revisiopueblos.org](mailto:info@revisiopueblos.org) / [gruzkoa@pueblosobdignidad.org](mailto:gruzkoa@pueblosobdignidad.org)  
**ARGIBIDEAK:** [www.revisiopueblos.org](http://www.revisiopueblos.org)

Antolatzaileak:



Babesleak:

**Parte hartzaileak:** 6**Hizkuntza:** Gaztelania**Data:** maiatza eta ekaina**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**

Pueblos eta Bakea eta Duintasuna

Azken urteetan, genero erlazioak eta Komunikazio eta Informazio Teknologiak gure gizartearen eraldaketa eta garapenaren oinarri izan dira. Hau dela eta, eskola sail honetan generoaren eta teknologien arteko erlazioak aztertu dira era partehartzailean, ikuspegi praktiko nahiz teorikoetatik. Horrela, teknologiaren teoria feminista nagusiak abiapuntutat hartuta, emakumeen eta teknologiaren arteko erlazioen alderdi nagusiak aztertu dira, praktikotasunari berebiziko garrantzia emanez; hala nola, edukin multimedialak sortuz, aktibismo teknologikoa suspertuz eta edukinak Sarean segurtasunez zabalduz, ezagutza aske eta eraldatzaileentzat bide berriak irekiz.

## Jabekuntza kontzeptualizazioak



### JABETZE ESKOLA: GENERO-EKITATEA ETA JABEKUNTZA EKONOMIKOA

*"Persona baten bizitza bultzatzea lortzen dugun bakoitzean, bere bizitzak bere aldetik naizagiena hartzeko, denak hurbiltzen gaitu gehiago generara eta gizarte guztiak irabazten ditu".*

### ESCUELA DE EMPODERAMIENTO ECONÓMICO Y EQUIDAD DE GÉNERO

*"Cada vez que logramos impulsar la vida de una persona para que alcance su máximo potencial, todos nos acercamos más al nuestro y gana toda la sociedad".*

IZEN EMATEA DOHAIRIK, plaza mugatuak  
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:  
ang@haurraldefundazioa.org / 943 32 71 62

INSCRIPCIÓN GRATUITA, plazas limitadas  
PARA MÁS INFORMACIÓN:  
ang@haurraldefundazioa.org / 943 32 71 62

www.facebook.com/haurralde @haurralde

mujeresforjadorasongreso@gmail.com • ang@haurraldefundazioa.org / 943 32 71 62  
http://garpemantzaleakcleremakumeak.wordpress.com • http://mujeresforjadorascleremantzalea.wordpress.com



**Parte hartzaileak:** 13

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Data:** otsaila

**Antolatzailea eta ninamizailea:**  
Haurralde Fundazioa

Haurraldek, Emakume Garapen-Sortzaileen proiektuaren barruan, Jabetze Eskola bat antolatu du bi helburu zehatzekin. Batetik, konponbideak autokudeatzeko emakumeen ahalmena handitzeko eta, bestetik, euren autoezaguera eta ekintza ekonomikoko gaitan bakoitzaren potentzial pertsonalaren garapena bultzatzeko.

## Oinarrizko gorputz kontzientzia



**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Data:** azaroa eta Abendua

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**

Maria Alonso del Val

Osasuna mantentzeko eta gorputzean aldaketa prozesu bat martxan jartzeko, fisioterapia mota bat da. Oreka lortu, arnasketa librea eta ohiko mugimenduekiko kontzientzia hartzea da saio hauen ardatza.



## Emakumeen Etxea Elkarteako jardunaldiak: DENON ARTEAN ERAIKIZ



**DENON ARTEAN ERAIKIZ**  
**CONSTRUYENDO ENTRE TODAS**  
Emakumeen Etxeko Jardunaldiak  
Jornadas de las Casa de las Mujeres  
Maiatzak 17, 24 Mayo  
11:00-14:00  
15:00-17:30  
Dinamizatzailea: Maru Sarasola  
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



**Hizkuntza:** Gaztelania

**Data:** maiatza

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Maru Sarasola

Beste batzuekin proiektu bat eraiki nahi dugunean taldeak edota elkarteak sortzen ditugu. Alde batetik, gure zeregina, helburua, taldeari zentzua ematen diona eta zertarako elkartzen garen landuko dugu. Bestetik, zeregin hori lortzeko sortzen dugun harremana aztertuko dugu. Zein da zeregina lortzeko asmatu behar dugun harreman egokiena? Nola diseinatu denon artean harreman hori? Nola bideratu, era konstruktiboan, gatazkatsuak diren egoerak? Galdera hauei erantzunak emateko tresnak eta trebetasunak landuko ditugu.



## Emakumeen Etxea Elkarteko jardunaldiak: INDARKERIA(K)

EMAKUMEEN ETXEKO JARDUNALDIAK  
JORNADAS DE LA CASA DE LAS MUJERES

**INDARKERIA(K)**  
**VIOLENCIA(S)**



EKAINAK 30 JUNIO 19:00  
NORMA VAZQUEZ  
UZTAILAK 7 JULIO 16:00-18:00  
IRANTZU VARELA  
UZTAILAK 14 JULIO 18:00-21:00  
MARU SARASOLA  
ANTOLATZAILEA-ORGANIZA: EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA

**Parte hartzaileak:** 40

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Data:** ekainak eta uztaila

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea  
Elkartea

**Dinamizatzailea:** Norma Vazquez,  
Irantzu Varela eta Maru Sarasola

Gaur egungo egoera kontuan hartuta, Emakumeen Etxea Elkarteko Erasoen Aurkako Batzordetik, Indarkeria(k) izenpean hiru egun desberdinetako jardunaldi-topaketak antolatu dira, Indarkeriaren gaia lantzeko. Hilabete batzuetan hausnartu ondoren gaia hiru ardatz jorratuz landu nahi zela erabaki zen:

1-Indarkeria(k). Kontzeptualizazioa eta tipologiak. Norma Vazquez.

2-Maitasun Erromantikoa. Identifikazioa eta aurka egiteko estrategiak. Irantzu Varela.

3-Errua eta erantzunkizuna. Maru Sarasola.

## Janzkera eta identitate erlijiosoa leku publikoetan

**Vestimenta, Identidad Religiosa  
en los Espacios Públicos**

**Janzkera eta Identitate  
Erligiosoa Leku Publikoetan**



**Lekua: Donostiako Emakumeen Etxea.**  
**Ordua: 18:00**  
**Eguna: osteguna, abenduak 18**  
**Hizlariak: Baan El Idrissi (gizarto hezitzailea)  
Hajar El Samadi (Bidaia elkarteko gizarto langilea)**

**Lugar: Casa de la mujer(Donostia)**  
**Hora: 18:00**  
**Día: Jueves 18 de diciembre**  
**Ponentes: Baan El Idrissi (educadora social)  
Hajar El Samadi (trabajadora social de la asociación Bidaia)**

  
Gipuzkoako Foru Aldundia

  
JATORKIN  
خطوركين  
Bidaia Elkartearen  
Asociación por Integración  
جمعية البدايا عن المهاجرات

**Parte hartzaileak:** 17

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** abenduak 18

**Antolatzailea:** Jatorkin

**Hizlariak:** Baan El Idrissi eta Hajar El Samadi

Gaur egun gizartean pil-pilean dagoen gai bati buruzko hitzaldia. Emakume musulmanak jazteko moduari buruzko hausnarketa egitea guztion artean.

## “La nación heterosexual” liburuaren aurkezpena



**Parte hartzaileak:** 32

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** ekainak 19

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

**Hizlaria:** Ochy Curiel

“La nación heterosexual” liburuaren aurkezpena, gaurko feminismoaren panoramako pentsalari aipagarrienetako baten eskutik.

## Loiolako Lorategi-hiriaren Plan Bereziaren Ikuspuntu Feminista



**Parte hartzaileak:** 15

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** apirilak 1

**Antolatzailea:** Emakumeek Eta Hiria Foroa

**Hizlariak:** Edurne Aperribay eta Juana Aranguren

Loiolako Lorategi auzoan hiri plangintza berrian genero ikuspegitik egindako lanaren aurkezpena. Auzoa diseinatzeko garaian emakume eta gizonen errealitateak, beharrak etab. kontuan hartuz. Adibidez, portalak, garajeetako sarbideak, bide gorriak, parkeen diseinuak, barne enparantzen diseinuak, funtzio anitzak dituzten espazioen eraikuntzak, gertuko zerbitzuen kokapena, etb.

## “Transfeminismos” liburuaren aurkezpena



**Parte hartzaileak:** 27

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** martxoak 29

**Antolatzailea:** Medeak

**Hizlariak:** Elena Urko

Transfeminismoan murgilduz: eztabaidarako, borrokarako eta goatzeko topaketa gune bat. Lehen zatian Somatecako ikasleak egindako “Angelito bideoaren proiektzioa eta gero “Transfeminismos: epistemes, fricciones y flujos” liburuaren aurkezpena.

## “ La consciencia del tiempo” liburuaren aurkezpena



MARIA  
MORALES  
CARSON

LA CONSCIENCIA  
DEL TIEMPO


**Parte hartzaileak:** 22

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** abenduak 11

**Antolatzailea eta hizlaria:** Maria Morales

## Guatemalako emakume Ixilak: dokumental-solasaldia



**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** apirilak 30

**Antolatzailea:** Giza Eskubideen Saila

**Hizlariak:** Mugen Gaietik

## “Marokok emakume izena du” dokumentalaren emanaldia

**Dokumentalaren bideo- emanaldia “Marokok emakume izena du”**

**Proyección del documental “Marruecos ya tiene nombre de mujer”**

Con la participación de: Omnia Nur, fatima Nciri, Saad El Hosni, miembros de la asociación marroquí de DDHH (Madrid)



Eguna: 2014ko, Apirilak, 25 Ostirala  
Lekua: Emakumeen etxea, Donostia  
Ordua: 18:00



Día: Viernes 25 de Abril 2014  
Lugar: Casa de la mujer Donostia  
Hora: 18:00



**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** apirilak 25

**Antolatzailea:** Jatorkin

**Hizlariak:** Omnia Nur, Fatima Nciri eta El Hosni



## “Egungintzan aritzen diren emakumeen duintasunaren aldeko borroka” hitzaldi-solasaldia



**Hizkuntza:** Elebiduna

**Data:** apirilak 9

**Antolatzailea:** Setem Hego Haizea

**Hizlaria:** Montserrat Arevalo

Arropa Garbia Kanpainaren Euskadiko Sareak (Setem Hego Haizeak ordainduta) Soldata Duinak deritzon kanpainaren barruan janzten dugun arroparen alde iluna erakusten du. Guk erosten dugun arropa egiten duten langileen soldata kaskarrak eta lan-baldintza arriskutsuak. Zer ote dago etiketa eta salneurrien atzean? Zer da marka handiek guk jakitea nahi ez dutena? Zein da ehungintzan lan egiten duten langileen egoera?



## Zer da ekofeminismoa?



**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** apirilak 3

**Antolatzailea:** Haurralde Fundazioa, Malen Etxea, Eraldatzen eta Hitzez

**Hizlaria:** Yayo Herrero

# Larre motzean dokumentalaren emanaldia eta erakusketaren aurkezpena



**Hizkuntza:** Gaztelera  
**Data:** apirilak 3  
**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**  
 Haurralde Fundazioa, Malen Etxea,  
 Eraldatzen eta Hitzez

Larre Motzean dokumentalaren proiektzioa, emakume baserriarren bizitza eta ekonomia azaleratzen duena eta diru-zorroen erakusketaren aurkezpena.

## Haurralde Fundazioko Emakumeentzako Jabekuntza eskola ekonomikoa



**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** apirilak 10

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**  
Haurralde Fundazioa

Emakume ekintzaileen praktika onak, akzio zehatzak eta prozesuak.

Enpresa propioak sortu dituzten emakumeek bertan hitz egiteko aukera izango dute, esperientzia pertsonalak kontatuz. Emakume Garapen sortzaileen proiektuko emaitzen aurkezpena.

## Emakume Abertzaleen Topaketen aurkezpena



**Parte hartzaileak:** 18

**Hizkuntza:** euskera

**Data:** azaroa

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**  
Bilgune Feminista

Abenduaren 13an egin zituzten emakume abertzaleen topaketak aurkezteko saioa izan zen. Donostiako emkaumeei zuzendua zegoen eta bertaratu zirenekin ariketa bat egin zen Euskal Herri Feminista bat irudikatzeko.

## Hiri Debekatuen Maparen kontraste saioak



**Parte hartzaileak:** 28

**Hizkuntza:** elebiduna

**Data:** azaroa etaabendua

**Antolatzailea:** Udaleko Parte Hartze Saila eta Berdintasun Saila

**Dinamizatzailea:** Haztiker

Donostiako udalak, hiriko elkarbizitza hobetu eta hiri parekide bat sustatzeko asmoz, hiriko emakumeek duela urte batzuk sustatu eta landutako Hiri Debekatuaren Mapari jarraipena eman nahi izan dio; horretarako Mapa bera eguneratu eta Hiriko Puntu Kritikoen Mapa izendatu du. Udalak mapa berri hau hiritarrek kontrastatu nahi izan du orain, hiria bizi dugunok baikara hiria hobekien ezagutzen dugunak.

Hori horrela izanda, kontrasterako, 3 saio antolatu ziren Emakumeen Etxean:

1. SAIOA: Mapa zirriborroaren Aurkezpen eta lehen balorazio eta kontrasterako saio bateratua
2. SAIOA: Mapa aztertzeko eta Ekarpenak lantzeko SAIOA
3. SAIOA: Hiriko mapa kritikoa onartzeko eta aurrera begira MODU DINAMIKOAN lantzeko SAIO bateratua (auzo eragileak+ emakume eragileak).

## Aztarnak bideoaren proiektzioa

ADI NESKAK! **EMAK** -ek antolatuta



Proyección del vídeo “Aztarnak” Bideoaren proiektzioa

Eta Neskaltzaileekin solasaldia

Y Coloquio con Neskaltzaileak

NOIZ: Azaroak 6, 19:00etan

6 de Noviembre a las 19:00

NON: Emakumeen Etxea (Okendo, 9)

**Parte hartzaileak:** 11

**Hizkuntza:** elebiduna


**Data:** azaroak 6

**Antolatzailea:** EMAK

**Dinamizatzailea:** Neskaltzaileak



# ERAKUSKETAK



## Sareak Ehunduz



**Hizkuntza:** elebiduna

**Data:** martxoaren 18tik apirilaren 1era

**Antolatzailea:** Unrwa Euskadi

Palestinako lurralde okupatuko egoera, Nazio Batuen aburuz, “larrialdi humanitarioen arloko egoera konplexuen” eredu argia da. Emakume palestinarrek Israelen inposatutako blokeo eta okupazioaren ondorio politikoak jasateaz gain, haien eskubideak mugatzen dituen gizarte patriarkal batean bizi dira.

2013ko ekainean, EAEko 10 emakume elkartetako kideek Palestinara bidaia egin zuten, hainbat elkarterek garatzen duten emakumeen eskubideen aldeko lana ezagutzeko. Bidaia hau, UNRWA Euskadi elkarterek, Garapenerako Lankidetzarek Euskal Agentiaren laguntzarekin, garatzen duen “Jabekuntzaren erretratuak” proiektuko jardura bat da. Proiektu honen helburua Palestinako eta EAEko emakume elkarten arteko sareak ehuntzea da. Astebetez, ordezkaritza hainbat emakume palestinarrek osaturiko erakundeekin bildu zen Gaza eta Zisjordanian. Erakusketa hau bidaiaren parte hartu duten emakumeen lan kolektiboa da, eta bertan bizi izandakakoa ikuspegi propio batetatik islatu nahi du.

## Diruaren sexu ezkutua

**Diruaren  
sexu ezkutua**  
El sexo oculto  
del dinero

**Dokumentala eta Diru-zorroetako erakusketa**  
Euskal emakumeak ekonomiaren sortzaile gisa berreskuratzen duen memoria historikoa

**Documental y Exposición itinerante de monederos**  
Recuperando la memoria histórica de las mujeres vascas como generadoras de economía

**LARRE MOTZIAN**, Euskal Herria garapenean eta leizorvan legendea duen erakusketaren bitartezkoak luze egiten ditu. Dokumentala berriro ere hain erakusketaren bitartez gisa, egonkortu izateko eta leizorvan, erakusketaren bitartez gisa, erakusketaren bitartez gisa, erakusketaren bitartez gisa, erakusketaren bitartez gisa.

**LARRE MOTZIAN**, erakusketaren bitartezkoak, que han contribuido al desarrollo y bienestar de Euskal Herria. El documental nos invita a recuperar la memoria de las mujeres, desde el trabajo en el campo al, los talleres de artesanía para sus familias y la vida transcurrida entre garbis, arrozales, vides y montes. Documental itinerante, gratuito y producido conjuntamente por mujeres.

<b>Marrazten 196. 17ra</b> <b>ZUMAZA</b> Del 7 al 17 de Marzo Aldego Kultura Etxea	<b>Marrazten 196. 31ra</b> <b>BEASAIN</b> Del 19 al 31 de Marzo Urdar Antzokia	<b>Apirilaren 206. 13ra</b> <b>DONOSTIA</b> Del 3 al 13 de Abril Ereburaren Etxea	<b>Apirilaren 196. erakusketaren 18ra</b> <b>ZIZUR NAGUSA</b> Del 11 de abril al 16 de mayo Kultur Etxea	<b>Urtarraren 206. 13ra</b> <b>ZUMABRAGA</b> Del 3 al 13 de Octubre Zabala Antzokia Etxea
---	---	--	---	--

**ERAKUSKETAREN BITARTEZKOAK**

**ERAKUSKETAREN BITARTEZKOAK**

**ERAKUSKETAREN BITARTEZKOAK**

**Hizkuntza:** elebiduna  
**Data:** apirilaren 3tik 15era  
**Antolatzailea:** Haurralde Fundazioa

Euskal emakumeak ekonomiaren sortzaile gisa berreskuratzen duen memoria historikoa erakustea da honen helburu.

## Presek kaltetutako emakumeak



**Hizkuntza:** elebiduna

**Data:** adendua

**Antolatzailea:** Mundubat



Brasilgo presak eraikitzean, giza eskubideak behin eta berriro urratzen direla kontuan hartuta, emakume kaltetuen egoera are eta larriagoa da, eta are oztopo gehiago dituzte, euren bizibide eta bizimodua berrerratzeko. Oro har, inork ez ditu emakumeak, euren berezitasunak eta zailtasunak kontuan hartzen. Hori dela eta presak proiektatzean, ezartzean eta abian jartzean sortutako txirotasun eta bazkerketarako biktima nagusiak izan dira. Emakumeek genero opresioa pairatu behar dute eta presak eraikitzean sortutako miseriaren eta desegituraketa sozial familiar nahiz banakakoaren kaltetu nagusiak dira.



# BESTELAKO JARDUERAK



## Emakumeen Etxea elkartearen urtemuga festa




**Data:** Uztailak 18

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

- Festaren aurkezpena Difusio batzordearen eskutik.
- Bertso emanaldi feminista, Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdiren.
- Karaokea zuzenean, Sabur bandarekin.
- Dj feminista.
- Subertsiorako gunea: GOAZEN MOZORRATZERA!

Festa honetan gu izango gara urratzaileak, protagonistak, dibak, mari-mutilak...Guk aukeratzen duguna. Etxean gune bat egongo da, non bi profesionalen laguntzarekin mozorratuko garen Drag King edo Dran Queen bat egiteko. Espazio hau emakume guztioi irekia izango da, beraz, ekarri mozorratzeko bururatzen zaizkuzun osagarri guztiak eta horrela beste gauza desberdin bat egingo dugu elkarrekin konfidantza, errespetu eta dibertimenduzko espazio batean.

## Zine Forum feminista



**Hizkuntza:** Elebiduna  
**Data:** Hilean behin  
**Antolatzailea eta dinamizatzailea:** Emakumeen Etxea Elkarte

URTARRILA: Water

OTSAILA: Gloria

MARTXOA: La vida de Adele

APIRILA: No está en venta

MAIATZA: Irina Palm

EKAINA: Iron Jawed Angels

URRIA: The punk singer

AZAROA: Los Canallas

## Emakumeen Etxea elkartearen tailerren festa



**Data:** ekainak 27

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**

Emakumeen Etxea Elkartea

Emakumeen Etxea Elkartek sortutako tailer guztien itxiera ospatzea da helburua.

**EGITARAUA:**

-Bideogintza tailerrak Emakumeen Etxean grabatutako Lip Dub-aren aurkezpena.

-Trinitik antzerki taldeak prestatutako bideo emanaldia, antzerki tailerlean egindako antzezen eta ekintzak ikustarazteko.

-Batukada tailerren aurkezpena, Sorginbandaren eskutik.

Eta gainontzeko tailerretatik, tailerretan bizi izan diren eskarmentuak eta ikasi dituzten edukiak partehartzaileen eskutik.

Aurkezpen guzti hauek eta gero, dantzatzeko eta ospatzeko gune bat sortuko da.



## Abortatzeko eskubidearen aldeko asanblada irekia

**GALLARDONEN ERREFORMAREN  
AURREAN  
EMAKUMEOK GURE GORPUTZEN JABE!**



**Asanblada:**  
Otsailak 4. 19:00etan  
Emakumeen etxean donostia

**EZ GARA ISILDUKO!!!  
NIRE GORPUTZA NIRE  
ERABAKIA!!!**



**Data:** otsailak 4

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**

Abortatzeko eskubidearen aldeko Gipuzkoako  
Plataforma

## Abortoaren lege aurreproiektuaren kontrako performancea



**Data:** martxoak 14

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**

Trinitik antzerki talde feminista

Donostiako Emakumeen Etxeko TRINItik Antzerki talde feministako kideek abortoarene lege aurreproiektuaren kontra egindako performancea

A photograph of a window with a red banner overlaid on it. The banner contains the text "eraldaketarako feminismoak". The window has multiple panes and a white frame. The background is a light-colored wall.

eraldaketarako feminismoak

**Emakumeen gunea, denona.  
Zurea!**